


## ZUMAIAKO EMAKUME AITZINDARIAK

Historia liburuetan eta kale izendegietan askoz emakume gutxiago agertzen dira gizonezkoak baino, biztanleriaren erdia izanik ere. Mendez mende, isilpean eta ezkutuan geratu dira emakume asko eta asko, haietako batzuk eragin handia izan zutenak. Hamabi zumaiar aukeratu ditugu, 1936a baino lehen jaiotakoak, egutegi honetara ekarri eta ezagutarazteko. Izen-abizenen ondoko QR kodeek aukera ematen dute emakume ekintzaile horiek bakoitzak bere arloan egindako lana hobeto ezagutzeko.

*El trabajo realizado por muchas mujeres a lo largo de los siglos ha quedado fuera de los libros de historia, y eso que algunas de ellas fueron muy influyentes. En este calendario os presentamos doce mujeres de Zumaia nacidas antes de 1936 y que fueron pioneras en su campo. Podéis conocerlas mejor a través de los códigos QR de cada hoja.*




Irudiak: **Ander Hormazuri**

Aholkularitza: **Emakumeon* Etxea, Mikel Arroiabe eta Imanol Azkue**

EUSKARAK 365 EGUN

Argitaratzailea:

Zumaiako Udala

ZUMAIA BIZITZEKO DA



KATALINA URKIOLA

# URTARRILA

EUSKARAK 365 EGUN

| | ASTELEHENA | ASTEARTEA | ASTEAZKENA | OSTEGUNA | OSTIRALA | LARUNBATA | IGANDEA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | | | | 1 | 2 | 3 | 4 |
| 2 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 |
| 3 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 |
| 4 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 |
| 5 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | |

ilberria ilbetea ilbehera ilgora



ANGELES SORAZU

# OTSAILA

EUSKARAK 365 EGUN

| | ASTELEHENA | ASTEARTEA | ASTEAZKENA | OSTEGUNA | OSTIRALA | LARUNBATA | IGANDEA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5 | | | | | | | 1 ilbetea |
| 6 | 2 | 3 | Santa Ageda bezpera 4 | 5 | 6 | 7 | 8 |
| 7 | 9 ilgora | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 |
| 8 |  Inauteriak 16 | 17 ilberria | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 |
| 9 | 23 | 24 ilgora | 25 | Erakusketa hasiera 26 | 27 | 28 | |

ilberria ilbetea ilbehera ilgora



PATXITA ETXEZARRETA

24. korrika aek Euskara gara

# MARTXOA

EUSKARAK 365 EGUN

| | ASTELEHENA | ASTEARTEA | ASTEAZKENA | OSTEGUNA | OSTIRALA | LARUNBATA | IGANDEA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 9 | | | | | | | 1 |
| 10 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | ♀ 8 |
| 11 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | Erakusketa amaiera 15 |
| 12 | 16 | 17 | 18 | Korrika 19 | 20 | 21 | 22 |
| 13 | 23 / 30 | 24 / 31 | 25 | 26 | 27 | 28 | Korrika 29 |

ilberria ilbetea ilbehera ilgora



JULENE AZPEITIA

EUSKARAK 365 EGUN

# APIRILA

| | ASTELEHENA | ASTEARTEA | ASTEAZKENA | OSTEGUNA | OSTIRALA | LARUNBATA | IGANDEA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 14 | | | 1 | Aste Santua 2 | Aste Santua 3 | 4 | 5 |
| 15 | Aste Santua 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| 16 | San Telmo eguna  | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 |
| 17 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 |
| 18 | 27 | 28 | 29 | 30 | | | |

ilberria ilbetea ilbehera ilgora



ELBIRA ZIPITRIA

# MAIATZA

EUSKARAK 365 EGUN

| | ASTELEHENA | ASTEARTEA | ASTEAZKENA | OSTEGUNA | OSTIRALA | LARUNBATA | IGANDEA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 18 | | | | | 1 | 2 | 3 |
| 19 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| 20 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |
| 21 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 |
| 22 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 |

ilberria ilbetea ilbehera ilgora



FELISA BASURTO

# EKAINA

EUSKARAK 365 EGUN

| | ASTELEHENA | ASTEARTEA | ASTEAZKENA | OSTEGUNA | OSTIRALA | LARUNBATA | IGANDEA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 23 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| 24 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 |
| 25 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 |
| 26 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 |
| 27 | San Pedro eguna 29 | 30 | | | | | |

ilberria ilbetea ilbehera ilgora



ESKOLASTIKA EGAÑA
*PRANTZI*

EUSKARAK 365 EGUN

# UZTAILA

| | ASTELEHENA | ASTEARTEA | ASTEAZKENA | OSTEGUNA | OSTIRALA | LARUNBATA | IGANDEA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 27 | | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 28 | 6 | 7 | 8 | 9 | San Kristobal Narrondon 10 | 11 | 12 |
| 29 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 |
| 30 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | Santiago eguna 25 | 26 |
| 31 | 27 | 28 | 29 | 30 | San Inazio eguna 31 | | |

ilberria ilbetea ilbehera ilgora




**BALENDIÑE ALBIZU**

EUSKARAK 365 EGUN

# ABUZTUA

| | ASTELEHENA | ASTEARTEA | ASTEAZKENA | OSTEGUNA | OSTIRALA | LARUNBATA | IGANDEA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 31 | | | | | | 1 | 2 |
| 32 | 3 | 4 | 5 | 6 | Euskal Jaia 7 | 8 | 9 |
| 33 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 |
| 34 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 |
| 35 | 24 San Bartolome / 31 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 |

ilberria ilbetea ilbehera ilgora



IXABEL ANTIA

EUSKARAK 365 EGUN

# IRAILA

| | ASTELEHENA | ASTEARTEA | ASTEAZKENA | OSTEGUNA | OSTIRALA | LARUNBATA | IGANDEA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 36 | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| 37 | 7 | Arritokieta eguna 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 |
| 38 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | Olarro Eguna 19 | 20 |
| 39 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 |
| 40 | 28 | San Migel Artadin 29 | 30 | | | | |

ilberria ilbetea ilbehera ilgora




IÑAXI ETXABE

EUSKARAK 365 EGUN

# URRIA

| | ASTELEHENA | ASTEARTEA | ASTEAZKENA | OSTEGUNA | OSTIRALA | LARUNBATA | IGANDEA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 40 | | | | 1 | 2 | 3 | 4 |
| 41 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 |
| 42 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 |
| 43 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 |
| 44 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | |

ilberria ilbetea ilbehera ilgora




**AXUNTXION SAN MARTIN**
*TUNTUXA*

EUSKARAK 365 EGUN

# AZAROA

| | ASTELEHENA | ASTEARTEA | ASTEAZKENA | OSTEGUNA | OSTIRALA | LARUNBATA | IGANDEA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 44 | | | | | | | 1 |
| 45 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 |
| 46 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 |
| 47 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 |
| 48 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 |
| 49 | 30 | | | | | | |

ilberria ilbetea ilbehera ilgora



KARMEN BALENTZIAGA

# ABENDUA

EUSKARAK 365 EGUN

| | ASTELEHENA | ASTEARTEA | ASTEAZKENA | OSTEGUNA | OSTIRALA | LARUNBATA | IGANDEA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 49 | | 1 | 2 ◐ | Euskararen Eguna 3 | 4 | 5 | 6 |
| 50 | 7 | 8 | 9 ● | 10 | 11 | 12 | 13 |
| 51 | 14 | 15 | 16 | 17 ◐ | 18 | 19 | 20 |
| 52 | 21 | 22 | 23 | Olentzero eta Gomezago 24 ○ | 25 | 26 | 27 |
| 53 | 28 | 29 | 30 ◐ | 31 | | | |

ilberria ilbetea ilbehera ilgora

## ERAGIN HANDIKO BESTE EMAKUME ASKO

Azken urteotan asko aldatu da emakumeek gizartean duten paperaren ikuspegia. Duela gutxi arte, gizonezkoek landu eta idatzi izan dituzte historia liburuak, eta bazirudien emakumeek etxe barruko ardurak bakarrik zituztela, erregina eta beste handizki batzuk kenduta. Azkenaldian, ordea, herriz herri artxiboetan egindako azterlanek erakusten dute emakumeek zuzenean eta gogotsu hartzen zutela parte bizitza sozial eta ekonomikoan, etxetik kanpoko bizimoduan.

Horren adibide, Zumaiako nobleen familia bateko emakume bat, **Isabel Ibia**, pintura lantzen aritu zen 1570 inguruan Mexikon ("La Zumayana" deitzen zioten). Alargunek ere protagonismo berezia zuten, askotan negozioen ardura hartu behar izaten zutelako: **Marina Lopez** itsas merkataritzan aritu zen 1580tik aurrera, iloba Katalinarekin tratua eginda, eta **Maria Elola**k udal gabarra kudeatzeko kontratua sinatu zuen 1578an. Erlijioaren alorrean nabarmendu ziren beste emakume batzuk, eta horietan artean azpimarragarriena **Frantziska Labaien** da, 1614an karmeldarren edo mojaxarren komentua sortu zuena.



WIKIPEDIA

*Baltasar Etxabe Orioren margolana; batzuek diote haren emazte Isabel Ibiaren erretratua dela.*





ZUMAIAKO FOTOTEKA

*Emakume zumaiar batzuk Oikiako baserri batean artoak zuritzen, 1945 inguruan. Maluta edo zorro horiek arrantzarako erabiltzen ziren gero.*

Itsasoaren eta arrantzaren munduan ezinbesteko papera jokatzen zuten emakumeek, gehienbat lehorreko lanetan: sareak konpontzen, despeskan (arrainak saretik askatzen), zamaketari, arraina saltzen, kontserbak prestatzen... Horrez gain, arrantzale gizonezko askok etxeko dirua emazteen esku lagatzen zuten, haiek familia barneko ekonomia hori kudea zezaten. Baserri askotan ere antzekoa zen egoera, etxekoandreak izaten zirelako produktuak saldu eta etxeko martxa bideratzen zutenak.

Imanol Azkue ibilia da Zumaiako artxiboa arakatzen, eta XVIII. mendetik aurrera etxetik kanpoko lanetan aritutako emakume askoren erreferentziak bilduak ditu: postariak, garbitzaileak, zerbitzariak, dendariak, ostalariak, kaleko saltzaileak, andereñoak, erizainak...

Tokirik ez daukagu denen izen-abizenak ekartzeko, baina behar-beharrezkoa da haiek egindako lana gizarteratzen jarraitzea.

## ARGITARA EKARTZEKO ETA GOGORATZEKO ERAKUSKETAK

2023ko martxoan ITZALPEKO EMAKUMEAK izeneko erakusketa antolatu zuen Erkibe kultur elkarteak, gehienbat 1936ko Gerrak eta frankismoak isilarazi zituzten emakumeak ezagutzera emateko. Zumaiarrei eskainitako txoko bat ere izan zuen erakusketak, eta egutegi honetako izen batzuez gain (Julene, Elbira, Balendiñe, Iñaxi...), hain ezagunak ez diren beste batzuen lana ere erakutsi zuten: **Margari**, **Miren** eta **Maitane Trueba Enbil** (Eresoinka taldean ibili ziren artistak), **Maria Dolores Arana** (Mexikon bizi izandako idazlea), etab.



ZUMAIAGUKA.EUS

*2023ko erakusketaren inaugurazio ekitaldia.*



ZUMAIAKO FOTOTEKA

*Ana Mari Garate eta Arritxu Zubia, 1962an.*

Zumaiako Emakumeon* etxeak antolatuta, tailer bat egin da 2025ean, EZ AHAZTEKO, GOGORATUZ izenekoa. Zumaiako historia lantzen aritu da talde bat, argazki zaharretan oinarrituta eta emakumeen ikuspegitik kontatuta. Begirada intimoa, pertsonala eta, aldi berean, komunitarioa baliatu dute, eta landutakoaren emaitza batzuk Alondegiko Oxford aretoan plazaratuko dituzte, **2026ko otsailaren 26tik martxoaren 15era** egingo den erakusketan.

## MOSTRADORE ATZEAN LAN UGARI

Dendari eta ostalari ibili ziren emakume askoren aipamenak agertzen dira artxiboetan XIX. mendetik aurrera. 2022 amaieran Maitane Subijana Zendoiak eta Miren Osa Galdonak azterlan baten emaitzak aurkeztu zituzten, 1940tik aurrera eta 2020ra bitartean Zumaiako emakumeek merkataritzan eta ostalaritzan izan zuten garrantzia azpimarratzeko.

Testuinguru sozial eta historikoan kokatuta, ondorio nagusia da presentzia oso handia zutela emakumeek eta ezinbesteko ekarpena egin ziotela herriari. Gainera, garai bateko alberga edo garbitokiak bezalaxe, emakumeen sozializaziorako eta elkar babesteko sareak izan dira dendak urte askoan.



JAVIER CARBALLO

*Bonifazioneko Kaxilda eta katua, Goiko plazako dendan*

*MOSTRADORE ATZEAN liburua (PDFa) eta podcasta (audioa).*